

IKASTEGIKO BATZORDEEI BURUZKO ARAUDIA

EKONOMIA GAIETAKO BATZORDEA

1.- Ekonomia gaietako Batzordeko kide izango dira: dekanoa edo hark bere ordezkari izendatutako pertsona (batzordeko buru izango da); idazkaria, batzordeko kide guztien artean aukeratua; graduoko titulazio bakoitzeko irakasle bat; administrazio eta zerbitzu eta kide bat.

2.- Batzorde honek aholku emango du fakultateko aurrekontuei buruzko gaietan (urteko txosten ekonomikoa, irakaskuntzako azpiegiturarako deialdia, sailei irakaskuntzako materiala eta GRALak esleitzea).

TRUKE PROGRAMETAKO BATZORDEA

1.- Truke Programetako Batzordeko kide izango dira: dekanoa edo hark bere ordezkari izendatutako pertsona (batzordeko buru izango da); idazkaria, batzordeko kide guztien artean aukeratua; graduoko titulazio bakoitzeko irakasle bat.

2.- Batzordearen ardura izango da truke programetan parte hartzen duten ikasleentzako ikasketa planak gainbegiratzea. Horrez gain, batzordearen zeregina izango da mugikortasun programetarako kanpoko erakundeekin egingo diren hitzarmenak onartzeko proposamenak egitea.

IKERKETA BATZORDEA

1.- Ikerketako Batzordeko kide izango dira: dekanoa edo hark bere ordezkari izendatutako pertsona (batzordeko buru izango da); idazkaria, batzordeko kide guztien artean aukeratua; graduoko titulazio bakoitzeko irakasle bat; administrazio eta zerbitzu eta kide bat.

2.- Batzorde hau aholku emateko da eta ikastegiko ikerketa sustatu eta koordinatu du ikerketa bultzatuko duten ekintzen bidez.

GRADUOKO IKASKETA BATZORDEAK

1.- Graduoko ikasketa-batzordeak honako hauek osatzen dituzte:

- Graduoko koordinatzailea izango da lehendakaria, dekanok izendatuko du eta Fakultateko Batzarrean onartuko da. Bere zeregin nagusiak titulazioaren koordinazio horizontala eta bertikala dira, GIBaren laguntzarekin.

- Ikasturteko lau irakasle koordinatzaile (1., 2., 3. eta 4. mailakoak), ikasturtean irakasten duten ikasleentzako aukeratuak. Bere eginkizuna ikasturteko irakaskuntza-jarduereko garapen normala zaintzea da, jarraipena egiteko informazio garrantzitsua bilduz.

- Graduaren eremuan zehaztutako funtzioak dituzten beste koordinatzaile batzuk, halakorik balego: gradu-amaierako lanak, kanpo-praktikak, laborategiko praktikak, landa-praktikak, tutoretza-plana, ...

- Ikasleentzako ordezkari, Ikasle Kontseiluak proposatuta.

2.- Batzorde horiek ikastetxeko graduoko ikasketen curriculumak garatzen, jarraipena egiten, eta ikasketak berrikusten eta hobetzen laguntzen dute. Bere eginkizunak Fakultateko

Batzarrean onartu ziren 2009ko maiatzaren 4an. Bere jardun-eremua ikasleek beren koordinazio-arloan egiten dituzten jarduerak dira.

3.- Bere izendapena Ikastegiko Batzarrak onartzen du.

MASTERREKO BATZORDE AKADEMIKOAK

1.- Masterraren arduraduna izango du buru eta beste bi bokal, UPV/EHUko masterreko irakasleen artetik aukeratuak.

2.- Masterreko titulazioak kudeatzeko prozesuan laguntzen dute, eta ikasketa horien curriculum-garapen egokiaz, jarraipenaz, berrikuspenaz eta hobekuntzaz arduratzen dira.

3.- Bere izendapena Ikastegiko Batzarrak onartzen du.

KANPOKO PRAKTIKEN BATZORDEA

1.- Kanpoko Praktiken Batzordeko osaeran ahalegina egingo da emakumezkoen eta gizonetzkoen artean oreka egon dadin eta, gutxien dela, kide hauek izango ditu: dekanoa edo hark bere ordez izendatutako pertsona (batzordeko buru izango da); fakultatean ematen diren titulazio bakoitzeko nahitaezko kanpoko praktiken koordinatzailea; eta ikasleen ordezkari bat.

2.- Batzordearen ardura izango da nahitaezko kanpoko praktikak behar bezala kudeatzea eta Ikastegiko Batzarrari proposamenak egitea arlo horretako irakaskuntza hobeto antolatzeko. Era berean, batzordearen ardura izango da nahitaezko kanpoko praktiketan (Practicumean) matrikulatuta dauden ikasle guztiek izatea leku bat praktika horiek egiteko.

HAUTESKUNDE BATZORDEA

1.- Ikastegiko Hauteskunde Batzordeko kide dira: dekanoa edo hark bere ordez izendatutako pertsona (batzordeko buru izango da); idazkari akademikoa (batzordeko idazkaria izango da). Idazkari akademikoa ez badago, dekanorde batek ordezkatu du. Dekanorde horrek eskuordetuta baditu batzordeburuaren eginkizunak, beste dekanorde batek ordezkatu du idazkaria eta horrek ere ezin badu, beste batek eta abar.

4.- Horiez gain, ikastegiko Hauteskunde Batzordeko kide izango dira ondorengo pertsonak, Ikastegiko Batzarreko kideen artetik zozketaz aukeratuak:

a) Lotura iraunkorra daukaten irakasle-ikertzaile doktoreen ordezkari bat.

b) Irakasle-ikertzaile ez-doktore iraunkorren eta irakasle-ikertzaile doktore ez-iraunkorren ordezkari bat.

- Irakasleen ordezkari bat.

- Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

2.- Hauteskunde Batzordearen eskumenak dira:

a) Hauteskundearen gestioa deialdiari jarraikiz.

- b) UPV/EHUko Hauteskunde Batzorde Nagusiak hauteskundeei buruzko arautegi nagusia garatzeko edo interpretatzeko ematen dituen erabakiak ezartzea.
- c) Hauteskundeei buruzko gainontzeko arauak interpretatzea.
- d) Antzematen diren akatsak edo hutsuneak zuzendu eta osatzea kasuan kasuko xedapenen bidez.
- e) Errolda osatzea administrazio zerbitzuetan lortutako zerrenden bidez.
- f) Errolda argitaratzea.
- g) Zenbat hauteskunde mahai jarriko diren erabakitzea oinarri hartuta errolda; edozelan ere, ikastegiko atal bakoitzerako edo sail-atl bakoitzerako mahai bat jarriko da, behar bezala arrazoitutako kasuetan izan ezik.
- h) Hauteskunde mahaien jarduna zuzentzea eta koordinatzea.
- i) Hauteskundeetako akta egitea, aldarrikatzea behin betiko hautagai zerrendak, hauteskundeetako behin betiko emaitzak eta hautetsiak.
- j) Galderak erantzutea eta jarraibideak ematea, bere eskumenen arloan.
- k) Hauteskundeen arloan egindako erreklamazioak ebatzea.
- l) Boto txartel ofizialak egitea.